

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A


1997ko urtarrak 10

Usurbil, 11. Zenbakia

**BOST HILABETE
FRONTOIRIK GABE?**




HILDAKOAK



1996-12-26
Guadalupe Del Arco Tejedor
 63 urte.
 Goiko kalea. Atxegalde.



1996-12-28
M^a Itziar Zubiria Martija
 55 urte.
 Kalezar.



1997-01-01
Paula Marquez Llorente
 73 urte.
 Muna Lurra. Olarriondo.

1997-01-01
Kontxi Urkia Zumeta
 30 urte. Aginaga.

1996-01-02
Ander Ballester Caballero
 8 hilabete. Alperro Buru.

1996-12-09
Agustin Manterola Begiristain
 59 urte. Aginaga.

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

Usurbildik Donostiara astegunetan			Usurbildik Zumaiara astegunetan			Donostiatik Usurbila asteburuan		Usurbildik Zumaiara asteburuan	
07.00	11.05	17.05	07.10	11.40	17.05	07.55*	15.55	07.10	15.05
07.20	12.05	18.05	07.40	12.40	17.40	08.55	16.55*	08.05	16.05*
07.35	12.30	18.35	08.00	13.05	18.40	09.55	17.55	09.05	17.05
08.05	13.05	19.05	08.40	13.40	19.40	10.55	18.55	10.05	18.05
08.35	14.05	20.05	09.00	14.40	20.00	11.55	19.55	11.05	19.05
09.05	14.35	21.05	09.40	15.00	20.30	12.55	20.55	12.05	20.05
09.25	15.05	21.35	10.40	15.40	21.40	13.55	21.55	13.05	21.05
10.05	16.05		11.05	16.40	22.00	14.55	22.55	14.05	22.05
10.30	16.35								

*Igandetan ez, larunbatetan bakarrik

Bai, esan?

- | | | | |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala | 37 19 51 | • Taxi geltokia | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • Anbulategia | 36 20 13 | • Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 85 | • Gure Elkarte egoitza | 37 17 51 |
| • Oiarde kiroldegia | 37 24 98 | • Arrate egoitza | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia | 37 20 01 | • Noaia! aldizkaria | 36 03 21 |




Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Dagoeneko 279 usurbildar bazkide ditu Noaia!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!

Argitarapen honen editzioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL
(Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943)
36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar,
Ines Kamino, Leire Atxega,
Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Begoña Zubiria,
Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfonso
Vidal eta Nieves Aranburu.
Administrazioa: Arantxa
Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe
Antonio Labaien, Juan Luis
Izeta. **Informatika:** Pili Lizaso.
Banaketak: Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Tirada: 2.000 ale. **Sukaldaria:**
Joxe Mari Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esamen
eta iritzien erantzunkizunik.



Urtarrila, xoxik gabeko hila

Miren Maioz

Arropa saltzailea

Urteroko ohitura jarraituz,
Espainiako Aznarren
Gobernuak dagoeneko hain-
bat zerga, produktu eta oinar-
rizko zerbitzuren igoera iragarri
digu. Urtariletik aurrera, auto-
busez zein trenez bidaiatzea,
gutuna bidaltzea, hain beha-
rrezkoa dugun ura eta hainbat
eta hainbat oinarritzko elika-
gaiek igoera nabarmena
jasango dute. Aldiz, tabako
erretzaileak lasai egon zintezke-
te. Badirudi momentuz behin-
tzat tarifak izoztuta geratu dire-
la. Elektrizitateari dagokionez,
berriz, urteroko goranzko joera
eten eta oraingoan batz besteko
%3a jaitziko da.

Honek guztiak nora garama-
tza? Hau da urtero gure poltsi-
koak egiten duen galdera.
Jakitunen esanetan, prezioen
gorakada arina izango da,
batez ere Kontsumo Prezioen
Indizean (KPI) eragin zuzena
duten produktuen artean.
Guretzat, kontsumitzaile xume-
ontzat, ulertu ezin ditugun por-
tzentzia eta zifrak besterik ez
dira. Ze, azken finean, egune-
roko erosketak egiterakoan
ohartzen gara egunkaria eta
ogia bost pezeta igo direla,
Donostiara joatea garestiagoa
dela... eta horrela, abar eta
abar luze bat.

Non gelditu da hain merezia
dugun abenduko diru extra?
Diru hau agian urtariletako alda-
pa pittin bat arintzeko izan zite-
keen... Baina ez, Euskal
Automomia Erkidegoko herrita-
rren gehiengoak ez dio honi
jaramonik egingo, ahalegin izu-
garririk eskatzen baititu gizarte
honetako kontsumorako eten-
gabeko jarrera honi uko egite-
ak. Izan ere, hor daude horre-
tarako bultzatzen gaituen,
publizitate basati eta kontsu-
morako heziketa eza, biak,
nere iritziz, kontuan hartu beha-
rrekoak urte osoan, eta orain
berezi, igaro berriak ditugun
eguberrietan.

Eta azkenik, lerro hauek buka-
tzeko **Noaua!**ko lagunek egin
didaten galderari erantzungo
diot, hau da, ea nola ikusten
dudan "urtariletako malda" dela-
koa.

Dendari bezala, niri dagokida-
nez, urtarrila oso hila bete opa-
roa izan ohi da. Merkealdiak di-
rela eta, salmentek gorakada
nabarmena izaten dute. Hor
daude Kontsumo eta Merkataritza
sailburuak emandako
datuak; salmentarako produk-
tuen ia erdia baino gehiago
beherapenetan saltzen dela.

Beraz, niretzat otsaila da xoxik
gabeko hila.

ORBELDI
MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

 **GENERALI**
Aseguru Konpainia

**Mota guzietako Aseguroak
zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf. (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

PORTULARRUNE



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99

GALTZARAGAINAKO ETXEBIZITZA ETA GARAJE TALDEA.

Dagoeneko urte f'erdia pasa da eraikuntzak eta eskriturak sinatu genituenetik. Makina bat bilera egin ditugu eraikuntzaren akatsak eta gabeziak konpontzeko eskatuz. Baina berdin edo okerrago jarraitzen dugu. Garajeetan askoz ere ur gehiago sartzen da. Batzuetan, euria egiten duenean bidoietan biltzen dute ura, 60 eta 100 litro bitartean. Beste leku batzuetan, paretetatik sartzen da ura eta lur guztia inundatzen du, putzu zulo haundiak sortuz. Horrez gain, izugarrizko hezetasuna sortzen da. Eta sutearen

aurkako segurtasun sistema ere hondatu egiten du. Larrialdi kasuetarako ez daukagu su-itzalgailu edo estintorerik. Ikararen aurkako zerrailarik ez dago garajeetako goiko ateetan. Beheko pisuko garajeetan dauden kutxeta batzuetan Euria egiten duenean urak gainezka egiten du eta dena inundatzen da.

Norbait angula edo amurruinak hazteko asmotan baldin badabil, bizilagunen komunitatearekin harremanetan jartzea gomendatzen dizuegu. Horrela ur sorrera hauek aprobetxatu egingo dira.

Herritarren batek ur haundietan piraguismoa egiten

baldin badu, txapelketa internacional bat jartzeko aukera aztertuko genuke. Egun euritsu batean, plaza-tik garajeetako bigarren pisuraino joateko inolako arazorik ez litzateke egongo.

Galtzaragainako jabeen komunitate orokorra

OKERRAK ZUZENDUZ

Aurreko aleko **Herrorrek esan** atalean **Egoitz Mendikuter**en erantzunean **Xabier Izetaren** argazkia jarri genuen. Eta **Maialen Galarza** jarri genuen **Garagarzaren** ordez. Barkamenak eskatzen dizkizuegu lero hauetatik.

Badatozela, badatozela!

Hortxe egon ziren denak adi-adi nor etorriko zain. Eta tronpeta soinuekin batera iritsi ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Ondoren Usurbilgo etxetara joan behar omen zuten. Zurera iritsi al ziren?



Xirikitutik



TABERNA

San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80



ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KARTA BEREZIAK

Jai eta aste, bazkariak eta afariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.


Zuen zain geratzen gara!

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2

Tlf. 36 40 58



JOXE BERAETXE ARANBURU

Txikierrdiko Lokate baserrian jaio bazen ere, lau urterekin Usurbila etorri zen familiarekin batera Aintzin baserrira. 67 urte gainean dituelarik, bere bizitzan zehar lanbide asko egindakoa dugu: fabrikako langilea, sukaldaria, arrantzalea, egur moztailera,... Esperientzia guzti honek hainbat istorio kontatzeko aukera eman dio.



Noiz etorri zineten Usurbila bizitzera?

Lau urterekin, oraindik gogoratzen naiz. Ohea, koltxoia eta armarioa karroan sartuta etorri ginen. Ugazabak, "Cara Susan" azpeitiarrak, aitari baserriko zein alderekin geratu nahi zuen galdetu zion. Haur asko ginen eta eskilarak zirela eta lepoa hausteko arriskua zegoela ikusirik, beheko solairuarekin geratu ginen.

Lanean goiz hasi al zinen?

13 edo 14 urterekin. "Aceros" en hasi nintzen lanean. Zortzi ordu ematen nituen bertan. Horrela pasa nituen 14 urte.

Zer egin zenuen hortik aterata?

Orion untzi batean sukaldari lana aurkitu nuen 28 urterekin. Eta bertan lau edo bost marealdi egon nintzen. Antxoa eta atunetara ateratzen ginen. Azken hau harrapatzeko, "beita" egiten genuen: antxoa untziazen depositotik salabar-doarekin atera eta gero amuan jartzen genuen banaka-banaka. Jostearen antzekoa zen.

Sukaldari izanda, arrantzaletik zerbait ba al zenuen?

Zerbait izango nuen. Truke bat eginez, getariar batzuk bixiguak oparitu zizkiguten. Hauek presatu eta mahaira atera ondoren, begiak jan nizekion lehenik nireari. Hori ikusita, kapitainak "beste arrantzale bat badugu" esan zion untziko beste bati. Tradizioak arrantzalea izateko arraiaren begiak jan behar direla esaten omen du.

Terranova aldean ere ibilia zara.

Bai, behin izan nintzen eta hortxe geratu zen; ezta nahi ere!. Hiru egun behar izan genituen joateko, eta beste hiru etortzeko. Bakailaotan ari ginela, izugarritzko ekaitzak harrapatu gintuen eta ia olatu batek eraman ninduen. Bakailoa

jasotzen ari ginen untzira, eta hortxe geratu nintzen barrari heldua. Sustoaren ondorioz, patrioiak sukaldara sartu eta ez ateratzeko agindu zidan. Harrezkero itsasora ez naiz bueltatu.

Beraz, lurrera itzuli zinen.

Bai. Itsasoko esperientzia eta gero Nafarroa aldera joan nintzen egur-moztera. Baina han ere ezin lasai egon, eta beste larrialdi bat ere pasa nuen. Palankarekin egurra mugitzen saiatzen ari nintzen, baina ez zen mugitzen. Gainean jarri eta indarra egiten saiatu nintzenen berriz, enborra askatu egin zen eta hortxe joan nintzen berarekin batera, zirkokoak bezala. Gero erori eta eskerrak burua zulo baten parean geratu zitzaidan, bestela, kotxeak zapalduko zapoa baino okerrago geratuko nintzen!

Zorteko gizona zara benetan.

Ezin naiz kejaratu. Horregatik beti, nagoen tokian nagoela, nire aingeru guardakoaren alde erretzatzen dut.

Eta nondik datorkizu "esperando" goitizena?

Elenarenean bazegoen garai batean taberna. Gustatu egiten zitzaigun edatea, eta noski, horrek pixagurea ekartzen zigun. Komunera joan nintzen, baina ezin egin. Eskilaretan eseri nintzen orduan. Lagunek, jeisten ez nintzela ikusita, zertan nenbilen galdetu zidaten, eta nik "esperando" erantzun. Hortik dator izena.

Nesketan ere ibilia izango zara.

Noski, orain lehen baino gehiago. Lehen Irubidera edo Oilalumera joaten ginen erromerietara trikitixa eta baltsak egitera. Eta Jesus! zein gaizki ikusiak ginen apaizengatik. Orain, berriz, Donostiako Bretxara noizbehinka. Horrela bertako andreekin hitzegin eta "ligatzen" dut.

ALBORTA

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

gorriti

EDARITEGIA

kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

KINKILDEGIA

Barruko arropa finak eta
etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

URDAIAGA



Leire Atxega

Urte berri on guztioi. 1997 urtearekin batera gure pozak, zorionak, kexak, dudak esateko modua izango ote dugu **Noaia!**ko aldizkariaren bidez. **Urdaiagako** biztanleok urtea ondo hasi dugu.

Paketsu, animoso eman genion ongi etorria urte berriari baina zertxobait itzalean, ilunpetan sentitzen baikara. Santuenetik hasi, Urdaiagatik barrena eta Txokoaldera arte jarraituz, **gaua iristen denean ilunpea nagusi** izaten da bidean. Ilunabarrean bertatik pasatzen den edonork ez du



zipitzik ere ikusten. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da gure auzo maite honetara. **Asko kostako ote litzateke zenbait argi poste jartzea?** Nora jo behar dugu argia jartzeko eskatzeko? Borondaterik izango ote da gure eskaerari erantzuna emateko? Zenbat urte itxaron behar dugu argia

izan dezagun?

Argi kontuak alde batera utzi eta gai alaiagora pasa behar dut. Joan den **abenduaren 26an San Esteban Txiki** eguna ospatu genuen urdaiagatarrok. Hainbat jende hurbildu zen eguraldi hotz baina eguzkitsuan gure auzo polit honetara. Meza nagusia lehendabizi eta hamaikako goxoa izan genuen ondoren, trikiti soinu eta bertsolarien doinuekin batera. Eta ez hori bakarrik. Festetako komisioko kideek 9 erregali ere banatu zituzten zozketa baten bidez.

KALEZAR



Pedro Mari Matxain

Beste urte zahar bat atzean utzi dugu eta gaztea hor ikusten da aurrera ezin joanean. **Zer eskatuko genioke urte gazte eta indartsu honi?**

Lehendabizi Kalezartik kanpora gogoz kontra daudenak Kalezarrera ekartzea.

Kalezartarrei, berriz, ni ez naitzela beti berriketan arituko.

Begoña eta biok Kalezarren gertatutakoaren berri ematen badugu ere, gustora hartuko genituzke **kalezartarren idatzia**. Zedozer idatzi nahi duenak egin behar erraza du. Idatzi beharrekoa idatzi eta bere izenarekin niri ekarri.

Usurbildarrei berriz lau aurpegiarekin ez azaltzeko. Gauza

edo arazo bati nondik eta nola erreparatzen zaion ederragoa eta politagoa ikusten da.

Politikoei berriz, hamar metro pasa beharrean 1000 metrota- ra ez pasatzeko, eta beharrean aurkitzen denari laguntzeko. Behartsuen patrikak bi zulo omen ditu.

Noaia!ri berriz, Udaleko ple- noan hartzen diren erabakiak, onartzen dena eta atzera botatzen den guztiaren berri aldizkari honetan azaltzea.

Eta azkenik, **urtezar-urteberri Matzelino galtzagorri**.

Urteberria alde batera utzi eta Kalezarko ermita aipatu behar dut datozen lerroetan. Izan ere, **Sokorroko Ama** ermitan **erretaula berria** eraikitzen ari dira buru-belarri. Aben- duan hasi ziren lanean. Alda- mioa ermita aurrean jarri, erre- taula zaharra kendu eta bere- hala ekin zioten berria jartze- ari. Laister batean gure ermita politak teitatu xarmanta eduki- ko du. Hemendik aurrera gora begira egon beharrik ez.



ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25

Tlf. 36 25 60



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL




ejiran

KALEBERRI



**Nieves
Aranburu**

Gabonak joan zaizkigu, eta egunerokotasunean murgildu gara berriz ere. Hala ere egunerokotasun hau frontoiaren estalkia jartzeko lanek apurtu dute.



Azkenean hasi dira **frontoiko estalki berria** eraikitzen. Ikusiko dugu zenbat denboran egon beharko dugun frontoia ikusi gabe. Aurrekontua ere ez da nolanhikoa izango. Seguru egon orain arteko estalki zaharra egiten erabili ziren **550.000 pezeta baina gehiago** gastatuko direla.

Bestalde, nire kioskoan askotan entzun dudak kexa azaldu behar dut. Udarregiren monolitoa inguratzen duten **harriak arriskutsu** bihurtzen dira askotan. **Etxebeste kalean Matista-Enea** aurretik pasatzerakoan harri hauetako batekin estropozo egin eta erori denik ere bada. Beraz, ezer larria gertatu baino lehen konpontzea ez litzateke txarra izango.

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Txikitatik ezagutu izan ditut diru piskat atera asmoz **gabonetan etxez-etxe** ibiltzen diren **taldeak**. Bazirudien usadio hori desagertzen ari zela, azken urteetan talde hauek urritzen joan baitira. Aurten **Usurbilgo ikastolako haurrak** aritu dira **Txokoalden**, olentzero batekin eta abestuz giroa alaituz. Bitxikeri bezala, beraiekin zihoazen nagusiek etxeetan eskaintzen zizkieten txanponak hartzea galerazi zien. A ze aurpegia jartzen zuten haurrek dirua eskaintzen zietenan.

Gaiaz zeharo aldatuz, **ehiztariak pozik** izango dira. Dirudienez **oilagorra ugaritu** egin da mendi bazterretan. Orain dela gutxi **Usurbilgo Harane** futbol zelaian futboleak jokatzen ari zirela **lau oilagor** ikusi zituzten. Beste ezagun bati erribera aldean paseatzen ari zela **beste bat** pasa zitzaion gainetik. Gauzak honela izanik, azken egunetan **tiro de-xente** entzuteko parada izan dugu, batez ere ilunabarrean. Jaki hau hain preziatua izanik jendea saiatuko da txakurra hartu eta mendiak ondo arakatzen, zorte pixka batekin pieza batzuk etxeratzeko. **Andatza mendian hiru oilagor** ehizatu dituen ehiztariak badi-rela ere entzun dugu Txokoalden.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Ditxosozko gabonak pasa zaizkigu eta urte berriari adarretatik heldu behar oraingoan. Ez da mugimendu makala sortu **Udarregi** nahiz **Ageri Alden** olentzerok eta erregeek ekarritako opariak lagunen artean erakusterakoan. Haurrak txoratzen ibili dira hara eta hona beren jostailuekin. Hala ere, erregalien ilusia pasatzean sortuko dira ikaste-ko nagikeriak.

Asteartea, urtarrilaren 7an, autobus soinua itzuli zitzaigun **Atxegalderra**. **Haurrak**, beren liburu eta motxilak hartu eta berriz **ikastera**. Ez zen poz aurpegi haundiegirik ikusi, ez horixe. Animo! Bertan dugu eta **San Sebastian eguna** eta urteroko danborrada!. Berehala zabalduko da **Atxegalde** osoan **Ageri Alde** eta **Udarregitik** irtendako danbor hotsa.

Abenduko azken alea Atxegalden loteria tokatuko ote zitzaigunaren susmoz agurtu nuen, bada, **Alkorta harategian** salduriko loterian, azken zenbakiak gordoarena-ekin bat egin zuenez, hondarren bat jaso dugu.

BIDEO IKUSKA

Pelikula berriak eta azken nobedadeak zure eskuera:


"Las dos caras de verdad",
"A la hora señalada", "Decisión crítica"...

Laister:

"Striptise", "La tienda" "La roca"
"Misión imposible" "Independence day"...

Disney pelikulak, Game Boy eta Supernintendo jokoak salgai

K/ Nagusia, 25 - Tel.: 37 10 98



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIAK

Usurbil

tlr 36 14 87

oIARTZUN

CPR-GUATEMALA

Noaia!-ko orrietan azaldu genuen bezala, Nikolas Bengoetxea Guatemalara joan zen pasadan urriaren begirale internazional gisa. Abenduaren 18an etorri zen bueltan, eta bere esperientziaren berri eman digu. Ondoko lerrootan, bere bidaiaren arrazoiak eta herri honetako errealitatea azalduko dizkigu.

Elkartasuna

Lehenik eta behin, solidaritate edo elkartasuna nola ulertzen dudan adierazi nahi dizuet, eta ondoren Guatemalako errealitate zuen etxetara hurbiltzen saiatuko naiz. Ez dut solidaritatea behartsuen aldeko karitate ekintza



Arg.: N. Bengoetxea

Artoa da bertako indigenen oinarrizko elikagaia. Argazkian, emakumea "tortilla" bat egiten ari da. Gure taloaren antzekoa litzateke.

bezala ulertzen, behartsuei egun batetan lagunduz ez dugu beren beharra asetzen, egoera hori sortu duen arrazoietara jo beharra dago; gutxi batzuen diru eta botere gose asekaizta. Egoera hau mundu osoan zehar ikus dezakegu, gure etxean ere bai; langileen explotazioa, zabor kontratuak, ETTak, despidu librearen merketzea, langileek enpresariarekiko duten esklabu menpekotasuna...

Karitate ekintzak interesatzen zaizkie gizarte kapitalista honetako lapur handiei, hots, bankero eta enpresariei, eta hauei sustengua eskeintzen dieten politiko eta militarrei; hau da, miseri gorrian aurkitzen diren behartsuei lagundu miseri hori sortu duen arrazoiari begiratu gabe.

Elkartasuna herrialde desberdinetako borrokak ezagutzen hasten da, eta gure herriaren independentzi eta gizarte modelu justu batengatik gertatzen ari den borroka munduan zehar ezagutaraziz. Eta hori komunikabideen manipulazioarengatik oztopatua dago.

Besterik gabe, hango errealitatea nolakoa den azaltzera noakizue.

Guatemalako historiari buruz zenbait ohar

1944ko urriaren 20an iraultza gertatu zen Guatemalan, (gero Kubako iraultzan eredu moduan hartu zena) eta bertako historian lehenengo aldiz demokrazia ezagutu zuten. Lehenengo aldiz hauteskunde libreak egin ziren. Nekazal erreforma bat ere hasi zen, eta nekazari behartsuen artean lurra banatzen

hasi ere bai. Kontutan eduki behar da ia lur osoa gutxi batzuen eskuetan zegoela eta gaur egun ere egoera horrek dirauela (biztanlegoaren % 2ak lur emankorren % 70a du).

United Fruit Company konpainia iparramerikarrak lur sail handiak zituen. Zati bat behartsuen artean banatu zen, eta orduan CIA sartu zen tartean. "Komunismoa" zeterrela aitzaki moduan hartuz, estatu kolpe bat gertatu, eta "demokraziaren" izenenean diktadura militarra ezarri zen berriz, bertako oligarkia latifundista eta interes iparramerikarren laguntzaz; hau 1954. urtean gertatu zen.

Orduetik ez da demokraziarik ezagutu Guatemalan.

1960. urtean lau gerrilla ezberdin sortu ziren bertan injustizia sozialaren ondorioz: gosea, osasun zerbitzu eta hezkuntza sistema kaxkarrak, lurra gutxi batzuen eskuetan, arrazakeria, langileen explotazioa... eta egoera horrek oraindik bertan dirau. Beranduago lau gerrilla horiek URNGn (Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca) bildu ziren.

CPR, Comunidades de Población en Resistencia

80. hamarkadan errepresio gogorra jasan zuen Guatemalako biztanlego behartsu eta indijenak. Ehundaka herri suntsitu zituzten gerrillari laguntza ematen ziela aitzaki moduan hartuz, indijenen aurkako genozidioa gertatu zen. Herriak militarki kontrolatu ziren, eta PAC (Patrullas de Autodefensa Civil) deiturikoak sortu ziren; herrietako gizonezko guztiak, 15 urtetatik aurrerako guztiak

patrullero moduan ibiltzera behartuz, gerrillarekin zerikusia izan zezakeen edonor atxilotuz eta erahilez. Horrela "aldea modeluak" sortu ziren, edozein gauza egiteko ejerzitoari eska-tu behar zitzaion baimena; edozein mugimendu, zer lan-datu lurrean... Egoera jasan-gaitza benetan. Eta horrela giza eskubideen bortxaketa ugari gertatu zen. Egoera horren aurrean jende askok beren etxeetatik alde egin beharra izan zuen, goseak edo ejerzito edo PACen eskuetan hilik ez gertatzeko.

Milioi bat pertsona baino gehiagok beren etxeak utzi beharra izan zuten (Guatemala-ko biztanlegoa 10 milioi inguru-koa da), askok atzerrira jo zuten, batzuk estatuan bertan mugitu ziren, eta beste batzuk mendira edo oihanera ihes egin zuten.

Mendira edo oihanera ihes egin zutenak bizirik jarraitzeko antolatutako beharra izan zuten, eta horrela CPRak, Comu-nidades de Población en Resis-tencia deituriakoak sortu ziren. Gerrilaren laguntzik gabe libe-ratutako Latinamerikako po-blazio zibil bakarrak izan dira.

Lurrak okupatu zituzten men-dian edo oihanean, eta lur komun bezala erabili zituzten, ekoizten zuten guztia denen artean banatzen zuten, ejerzi-toak erretzen ez bazien behin-tzat.

11 urtetan etxebizitzarik gabe bizitu ziren, ejerzitoak harrapa-tzen bazituen erahil egiten baitzituzten. Lurrak lantzeko batzuk lanean zeuden bitarte-an besteak ejerzitoa zetorren edo ez zaintzen egoten ziren, eta ejerzitoa sartzan zenean ahal zutena hartu eta hanka egin beharra izaten zuten. Hurrei trapu batekin ahoa tapatu, ejerzitoak haurren ga-



Arg.: N. Bengoetxea

Guatemala hiriburuan, iraultzaren urteurrena aldarrikatzeko, URNGko militante-ek ekitaldi politikoan atera ziren kalera.

rasiak ez entzuteko, eta alde! Haur batzuk itota hiltzen ziren, jendea goseak, hotzak edo ejerzitoaren bonba edo balaz ere hil zen. Helikopteroetatik jendea bonbardeatzen zuten, jendearen arto sailei su ematen zieten, eta jendeak belar-rak janez edo lur azpiko tu-berkuluez elikatuz iraun zuen bizirik.

Gobernuak eta ejerzitoak gerrillaritzat hartzen zuen jende hori, eta aitzaki hori era-bili zuten horrelako sarraskiak egiteko.

Egoera jasan ezin hori dela eta, 1991. urtean CPR horiek argitara atera ziren. Guatema-lako gizartearen eta mundua-ren aurrean beraiek poblazio zibila zirela errebindikatu zu-ten, eta beren giza eskubide-ak errespetatu zitezen begirale internazionalen presentzia es-katu zuten.

Begirale internazionalen lana jende horren giza eskubideak bermatzen direla ikustea da, eta ez badira errespetatzen giza eskubideen aldeko era-kundearen aurrean eta mun-duaren aurrean salatzea. Gure lana hori izan da hain zuzen. Bertan egon naizen bitartean ez da egon inolako giza esku-

bideren bortxaketa, baina ho-rrek ez du esan nahi begirale faltarik ez dagoenik. Egoera lasaia zenez, irakaskuntza la-nean aritu naiz.

CPR komunitateetan 15 mila pertsona inguru bizi dira, eta 3 komunitate daude; CPR-Peten, CPR-Ixcán eta CPR-Sierra. Lehenengo biak oiha-nean eta azkena mendian. Azken honetan egon naiz.

Gobernua eta URNG bake elkarrizketetan ari direla oso entzuna izango duzue, baina CPR eta gobernua ere ari dira elkarrizketetan. CPRak lurrak eskatzen ari dira, orain dau-den lurrak okupaturiko lurrak baitira. Poblazio zibil modura kontsideratuak izatea ere eskatu dute, eta azken eskae-ra hau gobernua onartu du.

Guatemalan bakea sinatu da, baina kontuan hartu beharra dago sinatzearekin bakarrik ez dela bakea lortzen. Bertan bakea lortzeko aldake-ta ugari gertatu behar da: eli-kadura, etxebizitza, osasun zerbitzua, hezkuntza sistema on bat, explotazio eza... Guzti hau lortu arte ez da bakerik izango. Hau da, justizia soziala lortu arte.

Nikolas Bengoetxea

5 HILABETETAN FRONTOIAK ESTALKI BERRIA

Ba zen ordua. Usurbilgo frontoiari estalki berria jarri nahian lanean hasi dira jadanik. Usurbildarren arteko solasaldietan behin baino gehiagotan eginiko galdera bihurtu izan da hauxe: noiz jarri behar diote frontoiari estalki berria? Noiz hasiko dira lanean? Orain beste bi galdera ibiliko dira usurbildarren buruetan: **Nolakoa izango da estalki berria? Noiz amaituko dute?**

Construcciones Moyua erai-kuntza enpresari azaroan eman zitzaion estalkia egitearen lana. Abenduan hasi ziren azterketak egiten. Honek behar baino denbora gehiago kendu zien eta gabonak gainean zeudenez estalki berria egiteko lanak hauek pasatakoan hasia erabaki zuten. Honela bada, erregeek utzitako oparia izango balitz bezala, ekin diote Usurbilgo frontoiko-estalki berria egiteko obrei. Aurrekontua aurkeztu zutenean 5 hilabetetan lanak amaituko zituztela agindu zuten. Beraz, badakizue, datorren ekainaren erdirako amaituta egon behar dute estalki berriaren obrak.

Egurra, hormigoia eta kobrea

Estalkia egurrezkoa izango da, hori ikusiko da behintzat. Guk estalki berriari begiratzen diogunean egurra ikusiko dugu, baina burni eta egur nahasketa bat izango da. Goiko aldean hormigoizko kapa ezarriko zaio. **Iñaki Martínez Labiano** arkitektoak aurreikusi zuen estalkiak karga behar zuela. Egur eta burdin nahasketa horrek ez zuen behar besteko pisua hartzen eta haizeak eraman ez dezan hormigoia kapa izango du gainean. Hala ere Gaztañaga aldetik begiratzen duen edo-



Honelakoa izan da azken 30 urtetan Usurbilgo frontoia. Hemendik gutxira ahaztuta izango dugu nolakoa zen, estalki berriak ahaztaraziko digu.

nork ez du hormigoia ikusiko. Honen gainean kobrea jarriko da. Honen zergatia? **Felix Aizpurua** herriko aparejadorearen arabera, "kobrea erdoiltzean ez da desegiten. Burdina erortzen joaten da piskanaka-piskanaka, baina kobrea erdoiltzean atxekiturik gelditzen da. Gainera, denborarekin kolore berdea hartuko du". Estalki azpian berriz, egitura guztia sendotzeko burdinezko txarrantzak jarriko dituzte.

Guzti hau eusteko, ordea, egitura sendo baten beharra dago. Guztira 9 zutabe edo euskarri edukiko ditu estalki berriak. Ezker paretaren atzean 7, eta eskuin aldean 2. Ezker aldean. orain arte dau den burnizko bostak indartu ondoren mantendu egingo dira. Hori bai, aurretik forzatu egingo dira, pisu gehiago sostenga dezaten. Hauei beste 2 zutabe gehituko dizkiete. Eskuin aldean berriz pelota partiduak ikusteko arazorik ez da izango estalki berriarekin. Orain arte frontoi erdian zeuden burdinezko bi zutabeak kendu egingo dituzte eta frontoiaren aurrealdean eta atzekaldean zutabe berriak egin. Hauek hormigoizkoak izango dira, aurrekoa borobila eta atzekoa laukia.

Estalki berria egiteaz gain, frontoiko hormak ere berrituko dira, batez ere aurrekoa, frontisa. Honek orain arte oso gutxi ikusi den egitura hartuko du. Orain dagoen zarpea, harria atera arte pikatuko dute. Azken urteetan jarri zaiz-

AURREKONTUAREN LABURPENA

1- Urbanizazioa.....	11.525.342
2- Frontisa.....	1.417.471
3- Egitura (posteak).....	10.587.371
4- Estalkia.....	23.957.700
Guztira.....	47.487.884
Gastu orokorrak (%5).....	2.374.394
Etekin industrialak (%13)....	6.173.425
Kontrata aurrekontua.....	56.035.703
BEZ %16.....	8.965.712
Azken aurrekontua.....	65.001.415


kion petatxoak kendu eta harrizko plaka berriak jarriko dira. Oraindik ez da erabaki frontisa marmolezkoa ala karehaitzezkoa izango den. Lehenengoa beltza izango litzateke eta grisa bestea.

Eztabaida frontisa dela eta

Hala ere honek ez du eztabaidarik sortu, frontiseko plakek eramango duten egiturak bai ordea. Arkitektoak lauki irregularrez egitea pentsatu zuen, hau da, txikitik haundira. Honela, argazkian ikus daitekeen bezala, txokoan plaka txikiak, ondoren haundixeagoak eta azkenik plaka haundienak. Honek pelotariengan nahasketa sortuko al du? **Felix Aizpuruaren** esanetan ez, "pareta grisa edo beltza izango da eta plaken arteko tartekak ia ez dira ikusiko". **Pako Alkortak** berri ez du begi onez ikusten frontis berri hau. Hainbeste urte Usurbilgo frontoian eman dituenak "horrelako esperimentuak beste non-bait egin ditzatela, ez Usurbilen", dio.

Usurbilgo frontoia izango du beste aldaketarik. Alde batetik frontoia luzatu egingo dute. Atzekaldean metro bat inguruko pareta erantsiko zaio ezker paretari. Pelotariei txikia gelditzen zaie frontoia, eta horregatik luzatzea pentsatu da. Beste aldetik, ezker paretaren atzekaldean, orain uralita dagoen guztia kristala izango da. Lanak amaitzen dituztenean, Matista Enea aldean dauden kotxeak, nahiz hauen jabeak, lasai egoteko moduan izango dira, bertara ez baita pelotik joango. Kristala paretarekin bat joango da eta pelotak ez dira beste aldera pasako.

Frontoia atzeak ere eman du zeresanik. Atzean pareta egin behar zitzaiola, dema eta frontoia ezin zirela bereiztu...



azkenean euriari aurre egiteko goiko aldean kristala jarriko dute. 7 metro libre utzi eta goiko beste 6 metroak kristalez estaliko dira. Kristalaren jarraian, orain arte frontoi atzean egon den toldoa ezarriko da, euria egiten duenean jeisteko.

Adokinak kenduko dituzte

Frontoiaren inguruak aldaketarik izango al du? Bai horixe. Irazu eta Etxebeste kaleko adokinak kendu egingo dituzte, frontoia eta demak muga egiten duten arte. Orain arte Irazu kalean bi aldeetan espaloiak zeuden arren, urbanizazio berriarekin ez da espaloirik izango. Honenbestez, Irazu nahiz Etxebeste kaleetan eta frontoia amaitzen den arte Kalezar zeharkatzen duen bidearen antzekoa ezarriko dute, karehaitzezko adokina, koskarik gabekoa. Frontoirako sarrerak orain arte bezala mantenduko dira, nahiz eta ezker pareta metro bat luzatzean Etxebeste kaleko sarrera estutu. Gainerantzean, urbanizazio aldetik aipatzekoa dema plazan jarriko diren argiak. Dema plaza babesten duten

petrilean sartuta, demara begira 38 fokoa jarriko dira, 18 Etxebeste kalekoan eta 20 irazukoan. "Idibegi" deituriko hauek plazaren zolua argiztatu dute.

Irazu kalean pasabiderik ez

Obrak behar bezala egiteko, ezbeharrik gabe, segurtasun neurriak hartu dituzte. Hasiera batean, eta ziurrenik estalki berria jarrita egon arte, frontoi buelta guztia hertsirik egongo da. **Zumetaren** lanaren aurrean, adokinadoan, langileen kasetak jarriko dituzte eta estalki zaharra eta Irazu kaleko euskarriak desmontatu bitartean kale hau hertsirik egongo da frontoiko sarrera arte. Etxebeste kalean, aldiz, bi metroko pasabidea utziko dute. Estalkia eta zutabe zaharrak kentzean Irazu kalean ere bi metroko pasabidea egongo da. Lehendabizi estalkia eta posteak kenduko dituzte. Ondoren estalkia eusteko auskarriak eraiki eta amaieran ezarriko dute estalki berria. Guzti hau amaitu ondoren ekingo die urbanizazio lanei.

Josu Aranberri

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOEN ARRAKASTA

Aspaldian ez zuen Oiardo kiroldegiak horrelako betealdirik izan. **1.600** haur eta guraso inguru hurbildu ziren bertara abenduaren 22an. Eserleku guztiak beteta eta pista erdia baino gehiago ere bai. Argiak itzali bezain pronto, haur guztiak garraisika hasi ziren. Eta zer esanik ez **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoak agertu zirenean! **Tantaka Yotanka** izeneko azken ikuskizuna eskaini zuten. Abestiak, bihurrikeriak, Tantaka Yotanka indioa, Beltzi txakurra, Olentzero... haur guztiak aho zabalik egon ziren ordubete inguru. Eta gurasoak ere berdin, ez pentsa!



HAIMAR ETA JOSEBA ZUBELDIA EUSKADIKO ZIKLO KROSS TXAPELKETAN



Legazpiko Telleriarten abenduaren 29an egin zen **Euskadiko ziklo kross txapelketan** usurbildarrak lehen postuetan izan genituen. 23 urtez azpikoetan **Haimar Zubeldiak 2. postua** eskuratu zuen. Bere anaiak, **Joseba Zubeldiak, 4. postua** lortu zuen jubenil mailan. Eraitza hauekin Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuten. Hala ere, **Haimarrek** uko egin dio urtarrilaren 12an Ispasterren egingo den lasterketa honi, eta bide batez ziklo kross denboraldia amaitutzat eman du. **Josebak** bai, parte hartuko du Espainiako txapelketan.

HERRIKO GUDARIEI OMENALDIA EGIN ZITAIEN ABENDUAREN 30ean

Joxe Martin Sagardia "Usurbil", Joxe Mari Aranzazistroke "Arrantzale" eta Joxe Luis Segurola "Nazkaz" usurbildar gudariak omenaldi beroa jaso zuten abenduaren 30ean Usurbilgo frontoian. Hauen senitartekoez lorez hornitutako kandela bana jaso zuten oroigarri gisa. Oroigarri hauek espetxean dauden euskal preso politikoen senitartekoez eman zizkieten banan-banan, haiek igorritako testu bana irakurriaz. Ekitaldia herriko kaleetan zehar egin zen manifestaziarekin amaitu zen. Nahiz eta izugarriko hotza egin, jende ugari gerturatu zen omenaldira.



JENDE MORDOSKA URDAIAGAN SAN ESTEBAN TXIKI EGUNEAN



Urdaiagako festak abuztuaren hasieran izaten badi-
ra ere, azken urteetan abenduaren 26an **San Esteban txiki eguna** ospatzen da. Aurten ere ez du hutsegin. Eguraldi bikaina eta hotza nagusi izan baziren ere festa girorik ez zen falta izan. Meza nagusiaren ondoren txorizoa, haragi egosia, salda eta ardoa dastatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenek, guztia bertsolari eta trikitiar lagunduta. Eta ez zen hori izan guztia! Urdaiagako jaiak antolatzeko jarduten den komisiok bederatzi opari zozketatu zituen. Hamaiketako eginda ezezik, opariekin etxera, alajaina!

Kotxea zelaira Santueneako bidean

Abenduaren 24an, ez zuen susto makala hartu jaiotzarekin zihoan jendeak. Santuenea bidean Ingemar eta tren estazio aurrean Renault 5 bat bidetik irten eta erriberako zelaira joan zen. Zorionez gidariak ez zuen zauri larrik izan. Eta eskerrak, bidetik ateratzerakoan farola jo eta hau lurrera erori baitzen.

Usurbilgo regiona- lak nagusi gaboneta- ko futbol torneoan.

Abenduaren 28an gabonetako futbol torneoa jokatu zen **Harane futbol zelaian**. Bertan **Usurbil F.Tko** regional eta jubentilak, **Bar Usurbil**, **Antxeta** eta **Aginaga** Sagardotegia aritu ziren. 40 minutuko partidua jokatu zituzten eta azkenean



Usurbilgo Judo Taldeak 16 domina lortu zituen joan den abenduaren 22an Oiartzunen egin zen Euskadiko Sambo txapelketan. 19 urtez azpikoetan urrea irabazi zuten **Iban Etxaniz**, **Anartz Aizpurua**, **Aritz Iriarte** eta **Josu Arrutik**, zilarra **Vanesa Guevara**, **Iñigo Etxaniz**, **Gaby Sarasola** eta **Gaizka Maizek** lortu zuten eta brontzea **Xabier Heras** eta **Andoni Aizpurua**.

Senior mailan urrezkoak **Mikel Ponga**, **Ana Rodriguez** eta **Erika Guevarak**, zilarra **Aiora Arrozpide** eta **Garazi Goikoetxeak**. Eta brontzea **Ibai Peñak**.

Usurbil F. Teko regionalek irabazi zuten gabonetako torneooa. Azken neurketan **Aginaga Sagardotegiari** 1-0 irabazi eta garaipea eskuratu zuten. Azken hauek aurreko neurketa guztiak irabaziaz eskuratu zuten finalerako txartela.

Sua Zubietako Irigoien baserrian.

Eguberri ondorena ez zen ona izan denentzat. **Zubietako Irigoien baserrian**, abenduaren 26an, etxeko sukaldean **sutea** sortu zen. Goizeko 11.00ak aldera gertatu zen.


Zorionez, sukaldetik satora bakarrik zabaldu zen. Etxearen gainontzeko geletan ez zen ezer erre. Hala ere, ke arrastoa eta usaina nabaritu zuten ondorengo egunetan. Ez dakite sutea nola sortu zen.

Mus Txapelketa Antxetan

Abenduaren 24an, Mus Txapelketa egin zen Antxeta tabernan. Bertan, 50 bikotek parte hartu zuten. Enbido eta ordago ugariren ondoren, Pello Murua eta Agirre oriotarrek irabazi zuten. Bigarren lekuan Angel Matxain eta Rufino Izagirre geratu ziren.

Santueneako zubia konponduta

Azken hilabeteetan egurrez estalirik egon den petrilarren zatia konpondu dute Aranzazistrotarrek.



Zumarte musika eskolako haurren abesbatza

ez da geldirik egon gabon hauetan. Lehendabizi Organua ekarri zuteneko 75. urteurrenean abestu zuten, ondoren Oretetan eta beren ekitaldiei amaiera ona emateko Donostiako **Victoria Eugenia**n eskeini zituzten beren abestiak. Usurbilgo gazteria indartsu dator Irri abesbatzari atzetik bultzaka.



Ez zen inuxentada izan. Urtero legez, **Sagardo Egunaren Lagunak Elkarteak** barrikotea antolatzen abenduaren 28an. Sagardoa, sardinzarra eta gaztainak, hotzari aurre egiteko aukera bikaina. Izan ere abenduaren amaieran egindako hotze aurre egiteko zer hoberik sardinzahar eta gaztain batzuk baino. Zer moduzkoak zeuden? Irudia ikusi besterik ez dago.

KIROL KOPLA



SAIOA ERRO

Ekin diogu urte berriari, eta nola gainera. Jana eta edana izango zen Usurbilgo etxe eta kaleetan kirolak ohizkoena. Sufrimenduzko kirolak alde batera utzi eta gabonak ematen duten patxadaz baliatuaz kilo batzuk hartzeak ez du kalterik egiten. Ondorengo egunetan kirol gehiago egin eta listo.

Kirolari gehinek ere atseden egunak izan dituzte Usurbilen. Futboleak, eskubaloian, saskibaloian, pelotan..., ez dute partidurik izan, eta entrenamenduak ere gutxi. Herriko txirrindulariak eta judokak izan dira beraien lanean tinko jarraitu dutenak.

Eskolarteko txapelketak ere gelditu egin dira. Hurrek, kirolaren ilusioa erregalien ilusioaz ordezkatu dute, baina oparia eta kirola lotuta ez daudenik ez nuke esango. Zenbatek izango dute baloi berria orain? Auskalo. Bai mutil eta bai neska. Izan ere eskolarteko kirol hauetan guztiek dute lekua. Astebururo partiduak, eta astegunetan bi entrenamendu. Hori izaten da haur hauek izaten duten ilusioa. Etorkizunean onak izango ote diren ala ez? Orain jokatzen gozatu dezatela. Irabazi edo galdu, gustora egotea da kontua. Azken batean askotan gurasoak dute erru haundiena, beraien izaten baitira presio gehien sartzen dietenak.

Amaitzeko zorionak eskolarteko kiroletan ari diren entrenatzaile guztiei, zuen lana ez baita makala izaten.

BETERRI-SUB (ZUBIETA): UR AZPIKO TALDEA

Joan den urte amaieran, Zubietan Ur-azpiko taldea sortu zen: Beterrri-Sub. **Javi Diaz, Ramon Vicente, Joxian Iparragirre** eta **Manu Aranburuk** osatzen dugu talde hau. Gure helburua ur azpiko espezialitate guztiak bultzatzea da, bereziki apnea eta eskafandrismoa. Era berean, ingurugiroerekiko sentsibilitate handiagoa lortzea ere gure helburuetako bat da. Horregatik, Oria eta Igeldoko kostaldean begirale gisa ere ibili gara, "Coastwacht" ikerketan parte hartu dugularik; Cabo Nortetik (Finlandia-Suomi) Itsas Beltzeraino).

Gure planetaren 3/4a urak osatzen du. Ziur nago herritar guztiek ikusi dugula Costeau jauna munduko itsas-zoko guztiak aztertzen. Eta ziur nago ere ikusi dugula gizakiak zenbat aldiz jartzen dituen arriskuan toki miresgarri hauek guztiak: kutsadura dela, baliabideen suntsiketa edo animalien hilketa dela.

Ur azpiko ekintzek gizakiaren izpiritua baretu egiten du. Planeta honetan puntu txiki bat baino ez garelako ikustarazten digu eta gure seme-ala-bentzat gorde behar dugun altxorra dugula.

Ikastaroa Oiardo kiroldegian ematen da larunbatero arratsaldeko 16.30etan. Bertan parte hartzeko, gutxienez 14 urte izan behar dituzu eta igeri jakin behar duzu. Aletak eta betaurrekoak ere zuk ekarri behar dituzu, beste guztia gure esku dago. Lehengo ikastaroak, "bataioa", bi egun irauten ditu, eta bertan teoria eta praktika lantzen dira: bideo emanaldi eta igeriketaren bidez. Guzti honez gain, inguruko ikastetxeekin ere harremanetan gaude eta egitarau bereziak antolatzen ditugu bereziak.

Ur azpian ibiltzeko materiala oso garestia da, baina pixkanaka ari gara geure material propioa lortzen. Adibide gisa, Bartzelonan ospatutako "Feria Nautica"tik Zodiak bat ekarri nahi izan du-gu. Era honetan, Oria ibaian zehar ibilaldiak egiteko aukera izango baitugu.

Beraz, animatzea besterik ez duzu falta. Xehetasun gehiago jakin nahi izan ezker, Oiardo kiroldegira hurbildu besterik ez duzu. Bertan emango dizue matrikulazioaren berri. Edo bestela zuzenean guregana jo ezazu.

Manu Aranburu



Ikastaroan teoria eta praktika erakusten dira: bideo emanaldiaekin lehengoa eta igerilekuan bigarrena.

MAHASPILDEGI: BAZKIDEEN IZERDIZ ERAIKITAKO ELKARTEA

Gutxi ezagutzen ditugu Usurbilgo toponimia izenak. Askotan beste zerbaitei izen hori jartzen diogunean, orduan ikasten ditugu. Kiroldegia egin aurretik zenbatek jakingo ote zuten Oiardo Andatza aldeko leku bat dela. Etumeta ere halaxe da, euskaltegiak gain. Mahaspildegia ere, Atxegaldeko Elkarteak da, baina izen hori, elkarteak kokatua dagoen mendiskarena da. Oraingoan, ordea, mendiska dagoen lekuan utzi eta Mahaspildegia Elkartera hurbildu gara.

Orain dela 15 urte inguru ireki ziren Elkarte honetako ateak. **Joxe Leon Lizasok** gogoratzen duenez, "Atxegaldeko Elkartereko kide batzuren artean elkarte bat sortzeko nahia zegoen. Hasieran garajeren batean edo egitea pentsatu zen, baina ez zen egokia". Horrela, leku aproposago bat bilatzeari ekin zioten eta **Bista-Eder** base-rria hutsik zegoela konturatu ziren. "Bi bizitzako baserria zen eta alde bat erosteko aukera ikusi zen".

Jendea animatuta zegoen eta bakoitza bazkideak bilatzen hasi zen. Gutxienez 75 lagun behar ziren Elkarteak ireki ahal izateko. "Handik eta hemendik, azkenean, 47 bazkide bildu ziren eta proiektua martxan jarri zen".

Etxea erosi ondoren obrak egin behar ziren. Lan hori bazkideen artean egin zutela adierazi digu **Joxe Leonek**. "Bi igeltsero ofizial aritu ziren eta gaitzontzean, geroni. Bi urte edo pasa ziren txukun-txukun jartzeko. Ederki kostatu zitzaigun, baina azkenean hantxe genuen Elkarteak".

Harrezkero, 47 bazkide kopuru hori mantendu da urte haue-tan. **Joxe Leonen** hitzetan "bat edo beste ateratzen da eta zenbait kasutan aitaren lekua

semeak hartu du. Baina kopuru hori horrela mantendu da, bai".

Herri mailan zenbait ekitaldi antolatu ohi ditu **Mahaspildegik**. "Santixabeletan herriko elkartearen artean ospatzen zen soka-tira txapelketan ekipoa ateratzen genuen. Entrenatu eta dena egiten genuen serio-serio Agerialdeko frontoian. Eta azkeneko txapelketa geuk irabazi genuen". Atxegaldeko festetan ere ekintza desberdinak antolatu ohi zituzten. Zenbait urtetan mus txapelketa ere prestatu izan dute. "Hori zuzendaritzaren arabera egoten da" dio **Joxe Leonek**, "batzuk gauza gehiago antolatzen dituzte, eta beste batzuk gutxiago".

Gora beheren harian

Erabakiak hartzeko, ohi bezala, asanbladak egiten dira. Horietako batean erabaki zen emakumeen auzia ere. "Polemika pixka bat sortu zela gogoratzen dut. Batzuk emakumeak sukaldean sartzearen aldekoak ziren, eta beste batzuk ez. Azkenean sukaldaritza zereginetan ezin dutela ibili erabaki zen botaketan". Denak ez ziren konforme geldituko, baina emakume batzuk lasai joango

dira mahaiean jarritakoa jatera, eta kitto.

Sagardo Egunean lanean aritzen direnentzako bazkaria ere **Mahaspildegia** izaten da. "Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak eskatzen digu. Aitzaga sortu zenean hari eskatuko ziotela pentsatu genuen, baina ez zen hala gertatu" dio **Joxe Leonek**. Bertako bazkideen artean moldatzen dute prestaketa guztia; batzuk sukaldean eta beste batzuk zerbitzen. Egun horretan, bazkalorduan, Elkarte osoa Sagardo Egunean lanean aritzen direnentzat erreserbatua egoten da. Hori dela eta, zenbait bazkide ez daudela ados jakin izan dugu, egun horretan bazkaltzera joateko aukerik ez baitute. Elkartearen artean urtero txandakatea ere proposatu omen zuten azken asanbladan Dударik gabe, gai honen inguruan zer hitzegina izango dute hurrengo asanbladan. Eta erabakiaren arabera egongo da datorren maiatzeko Sagardo Eguneko bazkaria **Mahaspildegiko** mahaiean egingo den ala ez.

Ainhoa Azpiroz



Hainbat entrenamenduren ondoren, Santixabeletan lehen saria lortu zuten Maspildegiko kideek soka-tira txapelketan.

H erorrek esan



Juan Joxe Arrozpide

Kaleberri

Aurreko urtea bezalakoa edo hobea izatea. Lana eta osasuna edukitzea eskatuko nioke. Bi gauza horiek baldin badituzu, dirua gero etorriko da atzetik. Familia osoa ondo egotea ere oso garrantzitsua da, eta beraz, urte berriari guztiok zaintzea eskatuko nioke.



Juan Gutierrez

Kaleberri

Osasuna edukitzea, dudarik gabe. Bihotzetik gaizki nabil eta tratamenduan nago. Beraz, orain nagoena baino okerrago ez jartzea eskatuko nioke urte honi. Bestela, dirua ere faltan ez izatea nahiko nuke.



Nekane Segurola

Aginaga

Aurten bezain ona izatea eskatuko nioke alde batetik. Bestetik ordea, familia erdia kanpoan dugunez haiekin biltzea izango litzateke gehien nahiko nukeena. Hau lortuz gero, ez nuke ezer gehiago eskatuko. Hori izango litzateke nire eskari handiena.



Nekane Tolosa

Galtzara gaina

Datorren urterako munduko oparirik onena espero dut: nire haurra. Dagoeneko data bete dut eta hortxe nago, urte zaharra eta urte berriaren artean. Baina seguruenik urte berrian jaioko denez, ondo etortzea eskatuko nioke, hori da garrantzitsuen niretzat.

Zer eskatzen diozu 1997. urteari?



Manuel Conde

Etxe-aldia

Zerbait eskatzekotan, lana eskatuko nuke. Batez ere gazteentzat, oso gaizki baitago gai hau. Oso gaizki baitaukate. Nik bestela ez dut ezer gehiago eskatzen, hori lortuta nahikoa izango litzateke.



Elena Curiel

Puntapax

Dudarik gabe, nire alaba osasunez haztea eskatzen diot 1997. urteari. Bai eta nire osasuna ere ona izatea. Bestetik, aurten diru gehiago izatea ere ez litzateke gaizki etorriko. Era honetan dauden "zuloak" tapatu ahal izango nituzke, hori beti ondo etortzen da eta. Hala ere, horren gainera alaba ondo egotea eskatzen diot, dudarik gabe.



Jose Maria Cáceres

Olarriondo

Aurreko urteetatik desberdina izatea eskatuko nioke. Beti berdina egiten ari gara: lan asko eta guretzat denbora gutxi. Zerbait desberdina gertatzea gustatuko litzaidake, errutinatik ateratzeko. Adibidez, ez litzateke gaizki etorriko loteria nozbait tokatzea. Horrela, Curro bezala, Karibera joango nintzateke, bi aldiz pentsatu gabe.



Dioni Beratxe

Kaleberri

Ez dakit ba... lana. Behintzat lan kontuan orain arte bezala jarraitzea eskatuko nioke urte berriari. Oso gustora nago Udarregi ikastolako haurrekin lanean eta denbora askorako nahi nuke bertan lanean egotea. Gainera, lana baldin badaukat, diru faltan ez naiz egongo eta nahi dudana erosteko aukera izango dut.

Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

MAHUKA

GAZTE DENDA

Orain, neguko merkealdia

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Noaua!ko lehiaketa Troya aldera doa oraingo honetan. Bizikleta hartu eta haruntz abiatzen gara. Baina Troyako bihurgunera iritsi baino lehen gauza kuriosoa ikusi dut, argazkian dagoena hain zuzen ere. Ni lehiaketa gaztea naizenez zera galdetu diot nere buruari: Zer egongo ote zen lehen hemen? Zer izango ote zen orain dela urte batzuk? Hauxe da jakin nahi dudana, besterik ez. Niri erantzun zuzena bidali eta nik **Patri** jatetxean afaria erregalatuko dizut.



Eguzkitza aldetik irribartsu azaldu zitzaigun **Maria Jesus Olano**. Kalezarko plazan lehen zer zegoen erantzun eta Bordatxon bi pertsonentzako afaria ego kitu. Nork ez luke hori hartuko!



JOXE LOIDI MIKEL MATXAIN MARIJE ELEXPE

A ze zortea!. Guri tokatu behar! Honelakoak entzun genituen bazkideen artean zozketaturiko hiru otarren irabazleen artean. Urtarrilaren 3an eginiko zozketan Joxe Loidi eta Mikel Matxain bazkideen artean, eta Elexpe ileapaindegia publizitateak egiten dutenen artean izan ziren zortedunak. Besteok ez kezkatu. Berriz denbora asko pasa baina lehen izango da eta beste ezustekorik

"Kaixo, olentzero maitea. Aurten gauza bakarra eskatzen dizut: **Etxebesten afaria Arantxa Astiasuinzarrarentzat**". Ez da hau Arantxak bere eskutitzean jarri diguna, baina beraren eskutitza aukeratu dugu. Ez zen eskutitzan eskatzen zuena, baina tira.


Komikia



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak



TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak eta bokatak

USURBIL

O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil Tlf. eta Faxe: 37 02 69(Gipuzkoa)

URTARRILAK 10 ostirala

- **Usurbilgo Gazte Asanbladak Abiadura Handiko Trenari** buruzko hitzaldia antolatu du. Udarregi Zaharrean, arratsaldeko **19.30**etan.
- **Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak** antolatuta, **Patxi Añorga** presoari bixitaldia **Alcala Mecora**.
- **Futbol aretoko partidua** (M): **Antxeta- Kanua jate-txea**. **18.00**etan.
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E- Elgoibar**. Arratsaldeko

16.30etan.

- Jubeniletako **eskubalo**i partidua (N): **Urola- Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Corazonistas- Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (M): **Corazonistas- Usurbil K.E.**
- Bigarren nazionaleko **eskubalo**i partidua (M): **Deusto- Usurbil K.E.**
- Eskolarteko **futbol** partidua (N): **Belen "B"- Udarregi Ikastola**.



URTARRILAK 12 igandea

- Regional mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil- Loiolako**. Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Euskalduna- Usurbil**.
- **Futbol** partidua (N): **Aloña Mendi- Usurbil**.
- **Saskibalo**i partidua (M): **Usurbil S.T.- Haurtzaro Ikastola**.

URTARRILAK 13 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**-ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

URTARRILAK 13 astelehena

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E- S.D. Pulpo Z.K.P.** Arratsaldeko **16.00**etan.
- Jubeniletako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E- S.D. Pulpo Z.K.P.** Arratsaldeko **17.30**etan.
- Bigarren nazionaleko **esku**-**balo**i partidua (N): **Usurbil K.E- Bergara** Arratsaldeko **19.00**etan.
- Kadetetako **eskubalo**i parti-

Santa Ageda bezperan abesten atera nahi dutenentzako, **Bota Puntfuna** bertso eskolako kideek kantak entsaiatzeko aukera eman-go dute **urtarrilaren 14 eta 21**ean. **Udarregi Zaharreko bertso eskolan**, arratsaldeko **20.00**etan.



Haur jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

Senideren bat Usurbildik kanpo baduzu, **Noaua!**-ko bazkidetza oparitu iezaiozu eta hamabostero Usurbilgo berri etxean jasoko du.

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

enda

dua (N): Hernani- Usurbil K.E.

- Jubeniletako eskubaloi partidua (N): Hernani-Usurbil K.E
- Futbol aretoko partidua (M): Sala Fiestas Txanela-Antxeta.
- Eskolarteko futbol partidua (N): Udarregi Ikastola- San Ignacio H.

URTARRILAK 19 igandea

- Gaur Euskadiko Soka-Tira Txapelketa ikusteko aukera izango dugu Oiaro kiroldegian goizeko 10.30etan. Bi modalitate ikusteko parada izango da. **640 kilotan lehenengo taldean: Beti-Gazte, Torreko Landa, Napurrak, Barrundiz, Auzolan-Igeldo. Bigarren taldean berriz: Urrestilla, Areso, Motriku, Jai-Beti, E. Kirol zaleak eta Abadiño. 680 kilotan berriz, Urrestilla, Beti-Gazte, Motriku A, Areso eta Abadiñok hartuko dute parte.**
- Regional mailako futbol partidua (M): Texas Lasarte- Usurbil.
- Jubenil mailako futbol par-



Kadete mailako futbol partidua ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 12an . Oraingo honetan Usurbilgo taldea Munibere kontra ikusteko aukera izango dugu.

tidua (M): Usurbil- Urnieta.

- Futbol partidua (N): Usurbil-Antoniano.
- Kadete mailako futbol partidua (M): Mollarri-Usurbil.
- Saskibaloi partidua (M): Oriogi- Usurbil S.T.

URTARRILAK 20 astelehena

- Euskal Herria Askatu!-ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✓ Gasteizen ikasten edo lanean ari den jendearekin harremanetan jarri nahi dut egunero joan-etorria egiteko edo bertan pisua alokatzeko. Deitu 36 58 54 telefonora 20.00etatik aurrera.

✓ "Euskal artistak Goyarekin" erakusketa Zerainen ikusgai abenduaren 20tik urtarrilaren 12ra. 20 euskal artisten lanak, tartean J.L. Zumeta, "Arrastalu" eta A. Tapia usurbildarrak.

✓ Usurbilgo Odol-emaileen Elkarteak, urtarrilaren 20an, anbulategian, odola emateko aukera izango dela jakinarazten du.

✓ Mendiko botak salgai. Asolo markakoak eta plastikozkoak. Berri-berriak eta 9 1/2 neurria. Salneurria: 15.000 pta. Interesatuak deitu telefono honetara: 37 18 80.


✓ "Ttor-ttorrian" taldeko kide-entzako deia: urtarrilak 10 ostirala, ilunabarreko 20.00etan, betiko tokian. Urteko lehen afarira azaldu zaitezte.

BAZKIDIE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO


Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

Usurbilgo sagardotegiak



txotx denboraldia

AGINAGA



Egunero irekia astelehenetan ezik.
Menu aukera zabala, sagardotegikoa barne. Tlf. 36 67 10

Aginaga

ARAETA



Urte osoan txotxetik bertako sagardoa.
Egunero zabalik. Leku lasai eta aparta. Tlf. 36 20 49

Zubieta

iLLYNBE



Urtarrilaren 11ean txotx garaiaren hasiera.
Sagardotegi eta jatetxerako aukera. Tlf. 37 16 49

Txoko alde

iRVIN



Bertako sagardo berria dastagai.
Sagardotegiko giroa eta menua. Tlf. 36 12 29

Zubieta


SAIZAR



Hemendik aurrera 45 kupeletako sagardoa
dastagai denboraldi osoan. Tlf. 36 22 28

Kalezar

YRDARA



Egunero zabalik, igande gauetan ezik.
Urtarrilaren 18tik aurrera zabalik. Tlf. 37 26 91

Aginaga